

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

Ikasturtea 2018-2019

“ZURRUMURRURIK EZ ESTRATEGIA EHU-ko BIZKAIKO KANPUSEAN MURGILTZEN”

Egilea: Cynthia Salazar

Tutorea: Monike Gezuraga

Leioan, 2019ko ekainaren 19an

© 2019, Cynthia Salazar

AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Marko Teorikoa	7
2.1. Ikaskuntza-Zerbitzua.....	7
2.1.1. Zer suposatzen du Ikaskuntza-Zerbitzua prozesuaren parte-hartzaileengan?	9
2.1.2. Ikaskuntza-Zerbitzuaren Etapak.....	9
2.2. <i>Zurumurrurik Ez</i> Estrategia.....	10
2.2.1. Oinarrizko Kontzeptuak	10
2.2.2. <i>Zurumurrurik Ez</i> Estrategia. Jatorria	12
2.2.3. Getxoko <i>Zurumurrurik Ez</i> Estrategia.....	13
3. Metodologia	14
4. Marko praktikoa	14
4.1. Lanaren Garapena	14
4.2. Esku-Hartze proposamena	16
4.2.1. Justifikazioa.....	16
4.2.2. Helburuak	17
4.2.2.1. Helburu orokorra	17
4.2.2.2. Helburu espezifikokoak.....	17
4.2.3. Metodologia	18
4.2.4. Esku-hartzearen faseak.....	18
4.2.4.1. Faseen denboralizazioa	20
4.2.5. Ekintzak eta Jarduerak	21
4.2.6. Baliabide materialak, pertsonalak eta espazialak	22
4.2.7. Aurrekontua.....	23
5. Ondorioak	24
6. Erreferentzia Bibliografikoak	26
7. Eranskinak	29

[1] ERANSKINA. <i>Zurumurrurik Ez</i> Estrategiaren partetik jasotako formakuntza basikoan erabili ziren zenbait aurkezpen	29
[2] ERANSKINA. Esku-hartze Proposamena Gauzatzeko Diru Laguntza Eskaera	34
[3]ERANSKINA. Ekintzak eta Jarduerak Zehaztuta.....	38
[4] ERANSKINA. <i>Zurumurrurik Ez</i> Estrategiaren Formakuntza Basikoan Parte Hartzeko InskripzioaZURRUMURRURIK EZ (EHU-ko Bizkaiko Kanpusean Izango Dena).....	47
[5] ERANSKINA. Ebaluaziorako Tresnak.....	49
[6] ERANSKINA. Ikaskuntza Zerbitzuaren Metodologia Erabiltzearen Analisia AMIA-ren Bidez.	51

ZURRUMURRURIK EZ ESTRATEGIA EHU-ko BIZKAIKO KANPUSEAN MURGILTZEN

Cynthia Salazar Pérez

UPV-EHU

4

RESUMEN

En este Trabajo de Fin de Grado y teniendo como fundamento principal la metodología del Aprendizaje-Servicio, se pretende proporcionar una propuesta de intervención para lograr insertar la estrategia *Anti rumores* en el campus de Vizcaya de la Universidad del País Vasco. Este trabajo tiene dos objetivos principales: uno el ofrecer un servicio a la comunidad, concretamente, a las y los agentes sociales del campus de Vizcaya, mediante la implementación de la estrategia para lograr un mayor número de agentes anti rumores y así fomentar sociedades más justas y equitativas; y el otro, adquirir un aprendizaje respecto a todo el proceso del trabajo realizado.

Palabras clave: Aprendizaje-Servicio, Estrategia *Anti Rumores*, Prejuicios, Migraciones, Agentes Anti rumores.

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan Ikaskuntza-Zerbitzuaren metodologia oinarritzat hartuz, *Zurrumurrurik Ez* estrategia Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaiko kanpusean txertatzeko proposamena planteatzen da. Lan honek bi helburu nagusi ditu: gizarteari zerbitzua eskaini ahal izatea, zehazki, Bizkaiko kanpuseko eragileei, ahalik eta zurrumurruen aurkako agente gehiago lortzearen, horrela, ekitatean eta justizian oinarritzen den gizartea sustatzeko. Bestetik, prozesua garatzen den heinean, ikasketa prozesu batetik igarotzea.

Hitz gakoak: Ikaskuntza-zerbitzua, *Zurrumurrurik Ez* estrategia, Aurreiritziak, Migrazioak, Zurrumurruen aurkako agenteak.

ABSTRACT

On the basis of the “Service-Learning” methodology the purpose of this project is to introduce the “*Anti-Rumours Strategy*” within the campus in Biscay of the University of the Basque Country,. The project has two main aims: to offer a service to society, specifically the “*Anti-Rumours Strategy*” based on train Anti-Rumours agents in order to equal and fair societies, and to acquire new knowledge and experience due to the elaboration of the project.

Key words: Service-Learning, *Anti-Rumours Strategy*, Prejudices, Migrations, Anti-Rumours agents.

1. SARRERA

Zoritxarrez, bizi garen gizartean dagoen sistemak ez du errazten hausnarketa kritikoa. **Z**Beti leku batetik bestera presaka gabiltza, gure testuingurua analizatzeko eta guk geuk hausnartzeko tartetxo bat hartu gabe. Beraz, errealitate honen aurrean, gizarteak pentsatu behar duena gutxi batzuen esku geratzen da, herriak ez baitu denbora nahikorik horretan ibiltzeko ...

Kontziente izan behar gara gure pentsamenduak askotan gizarte eraikuntza baten emaitzak direla, eta horrek ez du esan nahi egokiak direnik. Badaude gizartean murgildurik zenbait ideia, jarrera edota jokabide ontzat hartzen ditugunak (betidanik entzun ditugulako, gure ingurukoek pentsatzen dutelako, etab.), hala ere, egokiak ez izatea izan daiteke.

Gizarte hezitzaileak izango garen heinean, gizartearekin zenbait erantzukizun daukagunaren kontzientzia hartu behar dugu, eraldaketa positiboak bultzatzearen. Eraldaketa horiek hezkuntza prozesuak suposatuko dituzte eta azken hauetan, hausnarketa kritikoa eta sarritan baita dekonstrukzioa ere halabeharrezkoa izango da. Dekonstrukzioa konstrukzionismoaren kontrakoa da, zenbait ideien deseraiketan datza, ideia hauen esanahi etimologikoetara ailegatuz, hots, erroetatik analizatuz (Huamán, 2013).

Pantoja, L., Alonso, M.J., Maite Arandia, M., Remiro, A., Rodríguez, I. eta Rubio, D. (2007) Gizarte Hezitzaileen Kode Deontologikoan aipatzen den bezala, gune eta heziketa denborak sustatzearen, berriazko ekintza eta jarduerak elaboratzearen erantzukizuna daukagu, izan ere, testuinguru desberdinetan hobekuntza pertsonala edota kolektiboa bultzatu behar dugu, prozesu indibidual zein kolektiboak areagotuz (orr. 40).

Aurreko guztia aintzat hartuz, hurrengo orrietan irakur dezakezuen Gradu Amaierako Lana planteatzea erabaki dut, **ikaskuntza-zerbitzuaren** metodologia erabiliz. Lanak Zurumurrurik Ez estrategia EHU-ko Bizkaiko kanpuseko etorkizuneko eragileei ezagutaraztea du helburu gisa. **Zurumurrurik Ez estrategia** aldaketa sozialerako prozesu bat da gizartean murgildurik dauden zenbait zurumuru, aurreiritzi eta estereotipo xenofoboen aurka egiten duena. Gizartean dauden hainbat pertzepzio, jarrera eta jokabideen aldaketa sustatuz; diskriminazioa saihestea, bizikidetasuna hobetzea eta aniztasunaren potentziala aprobetxatzea duena xede nagusi (De Torres, 2017).

Horretarako proposamen sozio hezitzaile baterako esku-hartze planteamendua aurkeztuko dut, parte-hartzaileek “zurumurruen aurkako agente” bilakatzea duena helburu gisa.

GRAL hau planteatzearen arrazoa nire egunerokotasunean bizi izan ditudan egoera batzuen ondorioz izan da, egoera horiek unibertsitatean bizi izan dudana formakuntza prozesua zalantzan jartzea suposatzen nigan. Unibertsitatean bizi izan dudana hezkuntza prozesuak gizartean ematen diren bidegabekeria ugariren kontzientzia hartzea areagotu digu, baita gure gizartean dauden eta negatiboak diren estereotipo, jarrera eta jokabide anitz hautematea ere. Jarrera, ideia... horien gainean dezente hausnartu dugu, hala ere, horien aurrean nola kudeatu eta zelan deuseztatu ez digute irakatsi. Unibertsitatea gizartean ematen diren bidegabekeriei aurre egiteko erremintez hornitzeaz arduratu beharko litzateke.

Zurumurrurik Ez estrategia ezagutzeak azaleratutako hausnarketa honetara ailegatzea lagundu zidan. Estrategia honek estereotipo, jarrera eta jokabide ezbidetzeko horiei aurre egiteko erremintak eskaintzea du xede nagusi. Hortaz, bikaina iruditu zitzaidan EHU-ko eragileen artean, konkretuki, ikasleen artean estrategia zabaltzea, gure erantzukizuna baita gizartean eraldaketa positiboa bultzatzea.

Beraz, lan honekin bi helburu nabarmen lortu nahi ditut. Batetik, ikasketa prozesu gogor eta hunkigarri hau amaituta, etorkizunari begira, Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaiko Kanpusean, agian etorkizunean beste kanpusetara ireki daitekeena, ekarpen positibo bat uztea, gizartearen eskura egongo den zerbitzu bat bezala ulertuta. EHU-ko **edozein pertsonak, bereziki ikasleek, urtez urte, Zurumurrurik Ez** estrategiak EHU-n eskainiko duen formakuntzan parte hartu ahal izatea, **zurumurruen aurkako agentea bilakatzearen**, espero dut, gizartean eraldaketa positibo bat sustatzearen.

Bestetik, lehen aipatu dudana moduan ikaskuntza-zerbitzu batez ari gara, hori dela eta, lan honen beste helburua **ni neu ikaskuntza prozesu batetik igarotzea** izango da. Esperientzia hau nire bizitzaren motxilan sartu eta horrek ondoren izango ditudan hurrengo bizipenetan eragina izatea, hots, **garapen pertsonal bat** suposatzea nigan.

Hasteko marko teorikoa daukagu, honetan lanean zehar landuko diren zenbait kontzeptu eta ideia definituko dira, konkretuki, ikaskuntza-zerbitzua eta *Zurumurrurik Ez* strategiaren inguruko kontzeptuak. Ondoren, GRALa egiterakoan oinarritu naizen

metodologia deskribatuko da. Jarraiki, marko praktikoaren atala dago, non esku-hartze proposamena planteatzen den. Eta amaitzeko, GRALa amaitu ostean ateratako ondorioak azaleratu ez ezik, erreferentzia bibliografikoak ere aipatu ditut.

2. MARKO TEORIKOA

Atal honetan, ikasketa prozesu guztian zehar agertu zaizkidan alderdi teorikoak argitzen saiatuko naiz, marko praktikoan garatuko den proposamen sozio hezitzailea hobeto ulertu ahal izateko. Horretarako egile desberdinen ideietan oinarritu naiz.



2.1. IKASKUNTZA-ZERBITZUA

Ikaskuntza-zerbitzua Puig eta Palosek (2006) adierazten duten bezala, “(...) hezkuntza proposamen bat da, ikaskuntza prozesuak eta komunitate zerbitzuak biltzen dituen proiektu bakar batean, zeinean parte hartzaileek ikasten duten bitartean, haien testuinguruaren errealitatea hobetzeko lan egiten duten” (orr.61, euskaratuta).

“Komunitateari eskaintzen zaion zerbitzu baten bitartez ikasteko eta irakasteko era da. Hezkuntza arrakasta eta gizarte konpromisoa lotzen du: ikasten besteekin trebeak izaten” (Batlle, 2018, orr.4, euskaratuta).

Uruñuelaren (2016) esanetan, ikaskuntza-zerbitzuaren metodologia daukan edozein prozesu testuinguruaren behar baten detekzioarekin hasten da, behin detektatuta zerbitzu bat diseinatzen da erantzuna emateko eta ekintza gauzatzeko beharrezkoak diren ikasketak elkartzen dira. Ikasketa horiek beharra sakonki ulertzeko zein planteatutako praktika modu eraginkor batean aurrera eramán ahal izateko.

Gainera, “metodologia honek suposatzen duen ikaskuntza ekintza eta hausnarketa ziklo baten ondorioz gertatzen da, honetan ikasleek, beste kideekin batera, prozesu batean lan egiten dute non ikasi dutena komunitateen arazoetan aplikatzen duten, eta era berean, komunitatearentzako helburuak lortzeko esperientziaren gainean hausnartzen duten, haien ulermen eta trebetasuna areagotzen den heinean” (Puig, Gijón, Martín eta Rubio, 2011).

Beraz, ikaskuntza-zerbitzua, unibertsitateak gizartearekin konprometituak diren profesionalak hezteko modua izan daiteke. Hau da, irakaskuntza ekintza eta zerbitzu bat

eskaintzen duen proposamena da; diseinatzeko, planifikatzeko eta ekintzak ebaluatzeko modu bezala gauzatzen dena.

Aurretik aipatutako ideietan oinarrituz gero, ikaskuntza-zerbitzu bat gauzatzen denean, bertan parte hartzen dutenentzat ikaskuntza pertsonal bat izateaz gain, zerbitzu bat suposatzen du komunitatearentzat, gizarte garapena, alegia. Horrek ikaskuntza-zerbitzuaren metodologiak garapen kolektiboa eta kontzeptu honek dakarren balioak bultzatzen dituela pentsatzera eramaten gaitu.

Azken hamarkadetan hezkuntza eta komunitatearen arteko loturaren garrantziaz ugari aztertu da. Eta horrek metodologia eta irakaskuntza metodo desberdinen sorrera eragin du. Hortaz, metodologia hauek ondo bereiztea garrantzitsua da. Lehenengo taulan komunitatea eta zerbitzuak lotzen dituzten ikaskuntza prozesu hiru aurkeztuko dira, argi geratzeko ikaskuntza-zerbitzua zer den eta zer ez.

I.Taula: ZERBITZU PROGRAMA DESBERDINEN BEREIZKETA

	ZERBITZU KOMUNITARIOA	IKASKUNTZA-ZERBITZUA	ZERBITZUAN OINARRITUTAKO PRAKTIKAK
Espero den hartzailearen rol-a	Hartzaile	Hartzaile eta Hornitzailea	Hornitzailea
Foku nagusia	Zerbitzua	Ikaskuntza eta zerbitzua	Ikasketa
Bilatzen diren hezkuntza-jomugak	Hiritar garapena	Hiritar garapena eta garapen akademikoa	Garapen akademikoa
Integrazioa kurrikulum-arekin	Periferikoa	Integratzailea	Ko-Kurrikularra / Osagarri
Ekintzaren Naturaltasuna	Gizarte kausa batean oinarrituta	Disziplina akademiko batean oinarrituta	Gradu batean oinarrituta

Iturria: Ramirez eta Pizarro, 2005, orr.20, euskaratua.

Gizartean gero eta gehiago dira metodologia hau praktikan jartzen dituzten erakunde, entitate edota ikastetxeak. Portugaleteko Santa Maria Ikastetxean aurrera eramandako proiektua. Proiektuak ospitaleko odol erreserbak igotzea zuen xede nagusi eta horretarako parte hartzaileek odolari buruz eta odola emateko beharraren garrantziaren inguruko ezagutzak eskuratuz, antolatzeko gaitasuna indartuz eta mezuak zabaltzeko komunikazio-teknikak jaso, hots, ikaskuntza prozesu batetik igaroz gero, odola emateko kanpaina bat abian jarri zuten auzoan. (Zerbikas, 2013).

2.1.1. ZER SUPOSATZEN DU IKASKUNTZA-ZERBITZUA PROZESUAREN PARTE-HARTZAILEENGAN?

ARCE PROGRAMAKo (2014) *“Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuei aholku emateko gidaliburu”*-n aipatzen den moduan, Ikaskuntza Zerbitzuak arazoak konponduz eta aldi berean, jarduera desberdinak gauzatuz, parte-hartzaileen gaitasunak aktibatzen ditu, parte hartzaileak protagonista aktibo bihurtuz. Hauek trebe sentitzeko eta gaitasunak gizarte-premia baten zerbitzuan jartzeko aukera dute; horrenbestez, gizartearen eraldaketan eragiteko egokiera dute .


Battle (2011, Aguilera hartuta, 2011:54) pedagogoen aburuz, ikaskuntza-zerbitzuaren metodologia erabiliz agerikoak izango dira hurrengo zeinuak:

- ❖ Parte-hartzaileen konpromisoa eta parte-hartzea hobetzen du, boluntariora indartuz.
- ❖ Aktore sozialen elkarrekiko ezagutza hobetzen du.
- ❖ Biztanleriaren maila kulturala hobetzen da.
- ❖ Biztanleen auto-estimua hobetzen du, izan ere, kontziente dira hobekuntza konkretuak sustatzen ari direla ingurunean eta honekin batera konfiantza hazten da.
- ❖ Aktore desberdinen komunikazioa hobetzen da, maitasunezko harremanak sustatuz.
- ❖ Proiektuko parte-hartzaileen jardura profesionala hobetzen du.
- ❖ Erronka eta zoritxarrei aurre egiteko gaitasuna sustatzen du.
- ❖ Biztanleriaren ardura edo erantzukizuna indartzen du.

2.1.2. IKASKUNTZA-ZERBITZUAREN ETAPAK

Ikaskuntza zerbitzuan funtsatutako proiektuak gauzatzeko hiru etapa desberdinetatik igaro behar da. (Perold eta Tapia, 2007). Jarraian zeintzuk diren ikusiko dugu (Ikusi I. Irudia).

I. Irudia: IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUEN IBILBIDEA



Lehenengo etapan motibazioa, analisia, diagnostiko eta erabakiak hartzeko momentua izango da, egoeraren arabera desberdina izango dena, noski. Plangintza errealista eta zehatz baten diseinua sortzea suposatzen du, parte hartzaile guztientzat ikasketa prozesu bat izan behar dena. Bigarren etapan, proiektua gauzatzeko momentua izango da. Azkenik, hirugarren etapan, ebaluazio eta sistematizazio finalak egin beharko lirateke. Aipatzekoa da, etapa guztietan zehar hausnarketa, ebaluazio eta sistematizazio zein komunikazioa presente egon behar dela, ikaskuntza prozesu eraginkor bat izateko (Perold eta Tapia, 2007).

2.2. ZURUMURRURIK EZ ESTRATEGIA

2.2.1. OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Zurumurrurik Ez estrategia ulertu ahal izateko, estrategiak oinarri gisa dituen zenbait kontzeptu zehaztu eta argitu beharko dira.

Gure gizartean murgildurik dauden zurumurruren jatorria, askotan, estereotipoekin lotu dezakegu. Estereotipoak ezaugarri jakin batzuk dituzten talde bateko kideei esleitzen zaizkien atribuzioak dira. Pertsona bati nolakotasunen bat esleitzen zaio talde jakin batekoa izango balitz moduan, ez baita epaitzen haren banakotasuna kontuan izanik (Myers, 1995, Ruiz-etik hartuta, 2019). De Torres-ek (2018) dioen moduan, estereotipoak positiboak zein negatiboak izan daitezke, hala ere, negatiboagoak sortzerako joera daukagu, izan ere, sarritan positiboak ondorio negatiboak ekar ditzakete.

Estereotipoak ezinbestekoak egiten zaizkigu, errealitatea sinplifikatzeko balio dizkigute. Alabaina, kontuz ibili behar gara estereotipo horiek emozioez betez gero aurreiritziak bilakatzen direlako, aurreiritzia estereotipoaren eraginez sortzen den ebaluazio emozionala da (Ruiz, 2019). Hauek negatiboa izanez gero, diskriminazio egoerak eragin ditzakete. Allport-en (1954, Ruiz-etik hartuta, 2019) aburuz, aurreiritzia kolektibo jakin bateko kide batenganako mesfidantzazko zein aurkako jarrera da, soilik kolektibo horretakoa izateagatik. Beraz, ondoriozta dezakegu estereotipoa ideia dela eta aurreiritzia aldiz, ideia horrek sorrarazten gaituen sentimendua. Ondorengo taulan adibide argi bat aurkeztuko dugu (Ikusi II. Irudia).

II. Irudia: ESTEREOTIPOAK ETA AURREIRITZIAK



Iturria: Berezko lanketa

Horren ildoari jarraiki, arrazakeria daukagu, arrazakeria diskriminazio ohikoenetarikoa bat da. Migrazioak arraza desberdinen bizikidetasuna suposatzen du era horrekin batera, zorritzarez, arrazakeriaren sustapena. Inmigrazio eta aniztasun kudeaketaren zuzendariak (2012) “*Frena el rumor: Guía práctica para combatir los rumores, los estereotipos y los prejuicios hacia la inmigración*” gidan aipatzen den bezala:

“Gizarte orok aldetara eusten dira eta migrazioa ez da salbuespena. Gainera imaginario soziala bere alde negatiboena erakusten ari da, aniztasun kultural azkarraren eraginez edota pertsona etorkin eta bertakoen interakzio mugatuaren eraginez” (orr.9, euskaratuta).

De Torres-ek (2018) dioenez, testuinguruetan non ez jakintasunak, estereotipoek eta aurreiritziek beldur eta mehatxu sentimenduak eragin dituzten, zurumurruek lasaigarri moduan har daitezke. Zurumuru anitz estereotipo eta aurreiritziez elikatzen dira. Gallegoren (2010) aburuz:

“Zurumuru bat laburra, espontanea eta ahozkoa den mezua da, azkartasunez hedatzen dena eta ia beti inpaktu negatibo bat suposatzen duena gizartearengan. Egiazkoa izateko pretentsioa dauka eta komunikazio formala zein ez formalaz baliatzen da gizartean zabaldu ahal izateko. Informazio, aurreiritzi, albiste edota publizitate faltsuaren itxura hartzen du. Baita konplot teoriarekin edo hirietako kondairekin bat egiten du ere. Sarritan komunikazio teknika estrategiko gisa ulertzen da publikoarengan eragiteko, baina distrakzioa eta nahasketa bilatzen duena ” (orr. 3, euskaratua).

Zurumurruek ez dira deuseztatuko soilik datu objektiboak emanez. Testuinguruaren araberako aspektuak, alderdi psikologikoak eta emozionalak oso garrantzitsuak dira eta

kontuan izan behar dira zurrumurru hauek ekiditeko estrategiak planteatzean (De Torres, 2018).

2.2.2. ZURRUMURRURIK EZ ESTRATEGIA. JATORRIA

Gure gizartean dauden zurrumurru, estereotipo eta aurreiritzi horiek ekiditeko, *Zurrumurrurik Ez* estrategia sortu da. “Estrategia hau epe luzerako aldaketa sozialerako prozesua da. Bere helburuak hurrengoak izanik: diskriminazioa saihestea, bizikidetasuna hobetzea eta aniztasunaren potentziala aprobetxatzea biztanleriaren pertzepzio, jarrera eta jokabide aldaketak sustatzea” (de Torres, 2018, orr. 7, euskaratua).

Aurreko erronka globalak lortzeko ideiarekin, Zurrumurrurik Ez estrategia hiru helburu konkretu hauetan zentratzen da:

- ❖ Herritarrak, banaka nahiz erakundeetako ordezkari gisa (erakunde sozialak, kulturalak, kiroltakoak, politikoak, erlijiosoak...), inplikatu eta trebatzea, zurrumurruren aurkako agenteen sare bat sortzeko.
- ❖ Pentsamolde kritikoa sustatzea eta estereotipo, aurreiritzi eta zurrumurru faltsuen ondorio negatiboak buruz sentibilizatzea; horretarako, aniztasunaren inguruko kontakizun negatiboak zalantzan jarriko dira eta ekintza berritzaileak eta parte-hartzaileak inplementatuko dira.
- ❖ Agenda politikoan eta sozialean eragitea, hartara, aurreiritziak murriztea eta diskriminazioa prebenitzea gizartearentzat oso helburu kolektibo garrantzitsua dela onartzeko. (Torres, 2018, orr.7, euskaratuta).

Torres-ek (2018) *Zurrumurrurik Ez* gidaliburuan adierazten duen bezala, Zurrumurrurik Ez estrategia 2010an Bartzelonan sortu zen, hiriaren kulturarteko planaren ekintza bat bezala eta 3000 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten haren sorreran. Hasierako momentutik estrategia, hiritartasunaren hausnarketa kritikoa eta sentibilizazioa sustatzearen, luzerako aldaketa prozesu bat bezala hartu zen, aurreiritziak deuseztatzeko komunikazio kanpaina baten moduan hartu ordez.

Ostean, 2013an sortutako proiektu¹ bati esker, beste zenbait lurraldetara hedatu zen metodologia hau, zehazki, Fuenlabrada, Getxo, Sabadell eta Tenerifera. 2014 argitaratutako proiektuaren emaitzak ikusita, pixkanaka pixkanaka Europatik zabaltzen

¹ Hurrengo helbidean ikus dezakezue proiektuko informazio gehigarria:
http://www.antirumores.com/resources/proyecto_estrategia_antirumores_racismo.pdf

joan zen, Limerick, Botkyrka, Nuremberg, Erlangen, Lublin, Patras, Loures, Amadora, Bilbo eta Sabadell lurraldeetara, besteak beste. Gero eta entitate, udaletxe, instituzio, etab. gehiago dira sare honetan murgildurik daudenak (Antirumores, 2013).

Zurumurrurik Ez estrategiaren metodologiak lurralde bakoitzak estrategia haren testuinguru eta baldintzetara mugatzeko aukera ematen du, lurralde bakoitzak bere helburuak eta lehentasunak finkatuko ditu eta horren arabera jarduera, ekintza edota plan bat egituratuko du.

2.2.3. GETXOKO ZURUMURRURIK EZ ESTRATEGIA

Oraingo lan honetan, Getxoko Udalak aurrera eramaten duen estrategian zentratuko dugu arreta, izan ere, Getxoko Zurumurrurik Ez estrategiako kideekin batera lan egin dugu prozesu osoan zehar. Hasteko Getxo kokatzea garrantzitsua litzateke. “Getxo kosta duen udalerrri bat da, Bilboko metropoli-eremuan kokatuta dagoena. Udalerrriak Algorta, Areeta, Erromo, Neguri eta Getxoko Santa Maria auzoak biltzen ditu. Getxok 77.793 biztanle ditu eta horietatik 7.337 atzerrian jaiotakoak dira. 2003 urtera arte, Europako hainbat komunitate nabarmengarriak ziren (Alemania, Italia, Frantzia y Britainia Handia). Beste herrialde batzuetatik zetozen pertsonen etorrera 2003 urtean hasi zen.” (Ekain Larrinaga, 2018, elkarrizketa pertsonala).

Getxoko *Zurumurrurik Ez* estrategia Zurumurruen Aurkako Euskal Herriko sareko (ZAS) partaide da. Beste elkarte eta instituzio edo udalerriekin batera, hala nola, ACCEM; CEAR Euskadi; Sos Racismo Gipuzkoa; Amekadi; Harresiak Apurtuz; Basauri, Bilbao, Donostia-San Sebastian, Eibar, Erreterria, Getxo, Hernani, Ibarra, Larraul, Ordizia, Pasaia, Portugalete, Tolosa, Zarautz, Villabona eta Gasteizeko udalak; Arabako Foru Aldundia; Gipuzkoako Foru Aldundia; Bizkaiko Foru Aldundia; Eusko Jaurjaritza, etab. (Lisciandra, F., Roman, G., Etxebarria, G., Santos, H.L., Alonso, I., Grandibal, J., Andrášiková, K., Gezuraga, M., Idoyaga, N., Axpe, I., Berasategi, N., San Martín, N. eta Saioa Bilbao, S., 2018).

Zurumurrurik Ez Getxoko estrategia gauzatzen dituen jarduerak bi alor desberdinetan sailkatu ditzakegu hurrengo taulan ikusi dezakegun moduan (Ikusi II. Taula)

II. Taula: ZURRUMURRURIK EZ GETXOKO ESTRATEGIAREN JARDUERAK

FORMAKUNTZA	BESTE JARDUERA / EKINTZA BATZUK
ZURRUMURRUEN AURKAKO AGENTEEN OINARRIZKO PRESTAKUNTZA Zurrumurruen aurkako egunerokoan baliatzeko prestakuntza, informazioa eta gaitasunak.	ZURRUMURRURIK EZ TOKIKO TALDEA Hausnarketa eta ekintzarako espazio bat da, estrategiaren alde aktiboa izateko eta estrategiak gero eta eragin handiagoa izan dezan laguntzeko.
SAKONTZEKO TAILERRAK Zurrumurruen aurkako agenteek identifikatutako gaiak aztertuko dira, patxadaz eta sakonean.	BIZILAGUNAK Ekimen honekin elkartzeko eta ospatzeko espazioak sortu nahi dira, getxotarron artean, udalerrian kulturartekotasuna, aniztasuna eta interakziorako eremuak bilatzen dituztenei.
ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEETAKO PERTSONEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA	

Iturria: Berezko lanketa

3. METODOLOGIA

Lehenik, An prozesuan zehar **Ikaskuntza-Zerbitzuaren** metodologia egon da presente. Azken batean, nire GRALa planteatzerakoan zein gauzatzerakoan aurrera eramandako prozesuak **ikaskuntza** bat suposatu du nigan, eta aldi berean, gizartearentzat **zerbitzu** bat eskaintzen ari naiz, konkretuki, *Zurrumurrurik Ez* sareko kideekin batera, EHU-ko Bizkaiko kanpuseko eragileen eskura esku-hartze bat martxan jarriko dugu, parte-hartzaileak zurrumurruen aurkako agenteak bilakatzearren, horrela, gizartea zertxobait bidezkoagoa izan dadin.

Bestetik, metodologia hau horrelako prozesu batean erabiltzeak inplikaturako eragileen arteko etengabeko koordinazioa eta kontrastea eskatu du, talde lana eta lankidetzaren protagonista izan direlarik. Zehazki, *Zurrumurrurik Ez* Getxoko strategiako kideekin batera aritu gara lanean.

4. MARKO PRAKTIKOA

4.1. LANAREN GARAPENA

Atal honetan esku-hartze proposamena sortu aurretik eman behar izan ditudan pausuak argituko dira taula batean islatuz (Ikusi , izan ere, ikaskuntza-zerbitzuaren metodologian ikaskuntza prozesua eskaintzen den zerbitzua bezain garrantzitsua da. Esku-hartze proposamena sortu aurretik izandako ibilbidea ikaskuntza sakona izan baita niretzat.

III.Taula: ESKU-HARTZE PROPOSAMENA SORTU AURRETIK EGINDAKO IBILBIDEA

IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA	INFORMAZIO GEHIGARRIA
<p>1. INCLUSI-ÓN PROIEKTUAN PARTE HARTU ERASMUS + -eko proiektu baten lan talde bateko kidea izatearen aukera paregabea eskaini zidaten, konkretuki, INCLUSI-ÓN izeneko proiektu batean. Proiektu honen helburua entitate eta elkarte desberdinek gauzatzen dituzten gizarte inklusibo indartzen duten praktika onen gida bat sortzea zen. Gida hau sortzeko proiektuan geunden kideek elkarrizketak egin behar genituen entitate eta instituzio desberdinekin praktika onak detektatzearen.</p>	<p>Hurrengo helbidean ikus dezakezue INCLUSIÓN gida: file:///C:/Users/HP/Downloads/InclusionGuideCASTELLANO.pdf</p>
<p>2. ELKARRIZKETA EKAIN LARRINAGAREKIN Zurrumurrurik Ez strategiaren arduradun batekin, konkretuki, Ekain Larrinagarekin, Getxo Udaleko esku-hartze komunitariorako teknikaria, hitz egitea egokitu zitzaidan. Elkarrizketa horretan, Ekainek strategiaren <i>handicap</i> bat jakinarazi zigun, alegia, gazte eta unibertsitateko ikasleen aldetik inplikazio falta.</p>	
<p>3. GRALaren GAIA HAUTATU GRAL-en gai proposamen eskaintza zerrenda hartu eta nire helburuarekin bat zetorren gaia hautatu nuen, Ikasketa-Zerbitzua (I-Z): Esku-hartze sozio-hezitzaileko proposamena.</p>	
<p>4. GRALaren TUTOREARI IDEIA KOMENTATU Behin gaia esleitu zidatela, nire tutoreari, Monike Gezuraga, neukan nahia komentatu nion. Ideia oso ona iruditu zitzaion eta horren aurrean, lanari ekin nion.</p>	
<p>5. ZURRUMURRURIK EZ ESTRATEGIAKO KIDEEKIN HARREMANETAN JARRI Ekainekin kontaktatzea ez zen zaila izan, lehenengo momentutik prest zegoen proposatutako esku-hartzean inplikatzeko. Ekain eta biok bildu ginen zer lortu nahi zen eta nola egin zitekeen inguruan hitz egiteko. Prozesuaren nondik norakoak finkatu genituen eta Zurrumurrurik Ez lan taldeari esku-hartzearen inguruan hitz egingo ziola esan zidan. Gainera, ni neu Zurrumurrurik Ez strategiaren formakuntza basikoa jasotzea proposatu zidan, niri aukera oso ona iruditu zitzaidan, ikasketa prozesua aberasgarriagoa izango baitzen.</p>	
<p>6. NI NEU ZURRUMURRUEN AURKAKO AGENTEA BILAKATU Zurrumurrurik Ez eskaintzen zuen hurrengo formakuntzan inskripzioa egin eta parte hartu nuen, Zurrumurruen kontrako agentea bilakatzearen.</p>	<p><i>Eranskinetan ikus ditzakezue formakuntzan jasotako aurkezpenak. Ikusi [1] ERANSKINA.</i></p>
<p>7. ZURRUMURRURIK EZ ESTRATEGIAKO DINAMIZATZAILEEKIN KONTAKTATU Ekainek Zurrumurrurik Ez strategiako dinamizatzaileen, zehazki, AMEKADI elkartearen kontaktua pasatu zidan eta hortik aurrera AMEKADI-ko neskekin egon naiz harremanetan.</p>	
<p>8. DIRU LAGUNTZA ESKAERA Zurrumurrurik Ez strategiako kideek eskatu zidaten ea lor nezakeen diru laguntzaren bat unibertsitatearen partetik esku-hartzea gauzatu ahal izateko. Beharrezkoa izango litzatekeela formakuntza emango duten profesionalak ordaintzeko, honen aurrean, diru laguntza desberdinen baldintzak aztertu ostean, Kooperazio esparruko diru-laguntza baten deialdian aurkeztu gara, dena den, oraindik ez dugu erantzunik jaso.</p>	<p><i>Eranskinetan diru laguntzaren eskaera ikus dezakezue. Ikusi [2] ERANSKINA.</i></p>

9. ESKU-HARTZEA URRIAN EGITEA PROPOSATU Nire GRAL-aren epeak amaitzen zirela ikusita zera proposatu nien <i>Zurumurrurik Ez</i> strategiako kideei, nire GRAL-ean esku-hartzearen proposamena aurkeztea eta behin lortu beharreko dirua lortuta eta dena ondo koordinatuta egonda, esku-hartzea gauzatzea. Honen aurrean haien baieztapena izan nuen.	
---	--

Iturria: Berezko lanketa

Azkenik, prozesu guztian zehar tutore / gidari bat izatearen garrantzia aipatzea gustatuko litzaidake. Kontuan eduki behar da ni oraindik ikasle bat naizela eta eraman dudan prozesua guztiz berria izan dela niretzat, beraz, galdua ibili naizen momentutan Monikereren aholkuak eta ekarpenak ezinbestekoak izan dira. Gainera, Monike Ikaskuntza-zerbitzuan emakume aditua izatea, metodologia honetan nola lan egin behar den eta alde onez baliatzean zein txarrei aurre egiten lagundu dit.

4.2. ESKU-HARTZE PROPOSAMENA

4.2.1. JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun, tamalez, gizarteak pentsatzen duena komunikabideen eta indarrean dauden politikari gutxi batzuen esku dago. Zurumurruek, nahiz eta informazio faltsua izan edota oinarri fidagarria ez eduki, oso azkar zabaltzeko erraztasuna daukate. Beraz, aipatutako komunikabide, politikariak, etab. horretaz baliatzen dira, zurumuru horiek zabaltzen laguntzen baitute haien interesetarako.

Horren aurrean, pertsona nagusien ideiak aldatzen oso zaila izanda eta estrategikoa ez dela ikusita, etorkizuneko eragileak, konkretuki, ikasle eta gazteak, gai honen gainean informatu, formatu eta hausnartzearen beharra ikusten dugu.

Lehen aipatu bezala, Gizarte Hezkuntza graduko bigarren mailan nengoela, ERASMUS + -eko proiektu baten lan talde bateko kidea izatearen aukera paregabea eskaini zidaten, konkretuki, INCLUSI-ÓN izeneko proiektu batean. Proiektu honen helburua entitate eta elkarte desberdinek gauzatzen dituzten gizarte inklusiboa indartzen duten praktika onen gida² bat sortzen zen. Gida hau sortzeko proiektuan geunden kideek elkarrizketak egin behar genituen entitate eta instituzio desberdinekin praktika onak detektatzearen. Niri, beste kide batekin batera, “kasualitatez” *Zurumurrurik Ez* strategiaren arduradun batekin, konkretuki, Ekain Larrinagarekin hitz egitea egokitu

² **INCLUSI-ÓN** gida irakurri nahi izanez gero, hurrengo helbidean kontsultatu dezakezue (Gazteleraz): <file:///C:/Users/HP/Downloads/InclusionGuideCASTELLANO.pdf>

zitzaidan. Elkarriketa horretan, Ekainek strategiaren inguruan hitz egin zigun, baita *handicap* bat zegoela ere jakinarazi zigun, alegia, gazte eta unibertsitateko ikasleen aldetik inplikazio falta. Hori dela eta, ondorengo esku-hartzea planteatzearen ideia bururatu zitzaigun. Gizartean dauden zurumurrak, estereotipoak, aurreiritziak, etab. erauzteko *Zurumurrurik Ez* estrategia unibertsitatean zabaltzea ideia eraginkorra izan zitekeela pentsatu nuen.

Estrategia honen bitartez, aldaketarako agente hauei erremintak eta informazio fidagarria eskainiko zaie zurumuru hauekin amaitzeko. Azkenean, haiek izango dira etorkizunean komunikatuko dutenak eta kate honen eragile nagusiak, hortaz, norbait aldatu ahal badu egoera hau, haiek izango dira.

4.2.2. HELBURUAK

4.2.2.1. HELBURU OROKORRA

Hurrengo orrialdeetan aurkeztuko den proposamen sozio hezitzailearen helburu nagusia EHU-ko Bizkaiko Kanpuseko eragileak “Zurumurruren aurkako agenteak” bilakatzea litzateke, konkretuki, Gizarte Hezkuntza, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Arte Ederrak, Soziologia, Kazetaritza eta Ikus Entzunezko Komunikazio graduko ikasleak. Izan ere, hauek izango dira etorkizunean ekitatean eta errespetuan oinarrituriko gizarte bat lortzerako bidearen eragile nagusiak.

4.2.2.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK

Hona hemen planteatutako helburu espezifikoak:

- ❖ *Zurumurrurik Ez* estrategia EHU-ko Bizkaiko kanpuseko eragileei ezagutaraztea.
- ❖ *Zurumurrurik Ez* estrategia unibertsitatean zabaltzea.
- ❖ Gizartean dauden zurumurraren inguruko edukiak partekatzea.
- ❖ Gizartean murgildurik dauden zurumurraren gaineko hausnarketa kritikoa sustatzea.
- ❖ Zurumuru horiei aurre egiteko tresnak eta erremintak eskaintzea.
- ❖ Esku hartzean parte hartuko duten pertsonen beste pertsonengan zurumurraren gaineko hausnarketa kritikoa sustatzeko erreminta eta strategiak irakastea, hau da, beste pertsonengan “kutsatzaileak” bilakatzeko tresnak helaraztea.

4.2.3. METODOLOGIA

Esku-hartze proposamena gauzaterako orduan erabiliko den metodologia azaldu ahal izateko aintzat eduki behar dugu *Zurrumurrurik Ez* estrategiak dituen funtsezko balioak aintzat eduki behar ditugu.

Esku-hartzearen kudeaketan *Zurrumurrurik Ez* strategiako kideek (diziplina desberdinetako pertsonak) eta ni neu egongo gara, beraz, diziplinartekotasuna izango da metodologiaren ezaugarri nabarmen bat. Honek askoz aberasgarriagoa den lana lortzea ahalbidetuko du, izan ere, ikuspuntu desberdinetatik landu ahal izango dira jarduerak zein ideiak. Horren ildoari jarraiki, pertsona ugari esku-hartzearen kudeaketan egoteak koordinazio estu bat izatea ekarriko du, guztion artean komunikazio eraginkor bat behar izatea suposatuko duena, horretarako koordinazio horretaz arduratzen den pertsona bat beharko zen, kasu honetan ni izango naiz funtzio hori beteko duena.

Bestetik aipatzeko da ere, esku-hartzea horizontaltasunean eta aniztasunaren balioetan oinarrituko dela, kudeaketa taldeko kide bakoitzak bere funtzio espezifikoak izan arren, inork ez du beste baten gainetik jokatu, talde anitz bat gara, beraz, erabakiak guztion artean hartuko ditugu, aniztasunean eta errespetuan funtsaturikoak, noski. Eta logikoa denez, erabakitzerako momentu haietan hausnarketa kritikoa ezinbestekoa izango da, erabaki koherente eta kohesionatuak deliberatzearen.

Elkarrizketan oinarritzen den ikaskuntza dialogikoaren metodologia ere nabarmenduko da, formakuntza planaren ekintza gehienek elkarrizketa izango baitute fundamentu gisa. Sentsibilizazioa lortu ahal izateko gizartearekin harremandu beharko gara eta horretarako elkarrizketa erabiliko da, noski honek suposatzen duena errespetatuz, esaterako, entzute aktiboa, errespetua, horizontaltasuna, etab. Diez eta Flechak (2010) dioten bezala metodologia hau gizarte honetarako ikaskuntza ikuskera da. Eta gaur badakigu ikasleak ikasten duena ez dela bakarrik irakaslearekin eta beste ikasleekin duen harremanen arabera, baizik pertsona guztiekin dituen elkarreragin guztiek dutela zerikusia. Fase honetan ere garrantzitsua da aipatzea emango diren formakuntzetan helaraziko den informazio guztia analisi eta ikerketa fidagarrietan oinarrituko dela.

4.2.4. ESKU-HARTZEAREN FASEAK

Ekintzen zehaztapenak aurkeztu aurretik, finkatutako helburuak aintzat hartuz, prozesuaren faseak definitzea beharrezkoa litzateke.

Prozesua hiru faseetan banatu dezakegu, hasteko komunikazio fasea egongo litzateke. Lehenengo honetan, ondoren gauzatuko den *Zurumurrurik Ez* estrategiak eskaintako formakuntza basikoa ezagutarazteko estrategia eraginkorrenak hautatu eta ekintza desberdinen bidez martxan jarriko dira. Bigarren fasea aldiz, lehen aipatutako formakuntza-plana planifikatu eta burutuko da. Eta azkenik, ebaluazio fasera pasatuko ginateke, non jarraitutako prozesua ebaluatu eta emaitzak aztertu egingo diren. Jarraian aipatutako faseak eta bakoitzaren helburuak definituko ditugu (Ikusi IV. Taula).

IV. Taula: ESKU-HARTZE PROPOSAMENAREN FASEAK

		HELBURUAK
1.FASEA. KOMUNIKAZIO PLANA	KOMUNIKAZIO PLANA PLANIFIKATZE A	<ul style="list-style-type: none"> · Errealitatearekin bat datorren plan bat planteatzea, kontuan izanik dauzkagun baliabideak zein testuinguruaren ezaugarriak eta mugak.
	KOMUNIKAZIO PLANA GAUZATZEA	<ul style="list-style-type: none"> · <i>Zurumurrurik Ez</i> estrategia ezagutaraztea. · Estrategian interesa duten ahalik eta pertsona gehien lortzea. · Ondoren emango diren formakuntzen gainean informatzea (Inskripzio epeak, baldintzak, datak, etab.) · Formakuntzan interesa duten ahalik eta pertsona gehien lortzea.
2.FASEA. ZURUMURRURIK EZ FORMAKUNTZA	FORMAKUNTZA REN PRANIFIKAZIO A	<ul style="list-style-type: none"> · Deialdi bat egitea, jendeak formakuntzan parte hartu ahal izateko. · Zalantzak argitzea edota edonolako eragozpenari irtenbidea aurkitzea. · Parte hartzaile guztien datu base bat sortzea, jakin behar duten guztiaren inguruan (ordutegiak, datak, etab.) informatzeko.
	ZURUMURRU RIK EZ FORMAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> · Parte hartzaileak Zurumurruren aurkako agenteak bilakatzea.
3.FASEA. PROZESUAREN EBALUAZIOA	LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> · Prozesua eta honen emaitzak ebaluatzea komunikazio planean zein formakuntza fasean.

		<ul style="list-style-type: none"> · Egondako <i>handicap</i>-ak analizatzea erantzun bat emateko eta indar-guneak detektatzea hauek indartzeko. · Proiektuaren jasagarritasuna definitzea.
--	--	---

Iturria: Berezko lanketa

4.2.4.1. FASEEN DENBORALIZAZIOA

20

1. FASEA: KOMUNIKAZIO PLANA (Iraila 2019-Urria 2019)

- *Irailak 23- Urriak 6.* Komunikazio planaren planifikazioa
- *Urriak 7- Urriak 20.* Komunikazio plana gauzatzea

2. FASEA: ZURRUMURRURIK EZ FORMAKUNTZA BASIKOA (Urria 2019 - Azaroa 2019)

- *Azaroak 21 –Azaroak 27.*Zurrumurrurik Ez formakuntzaren planifikazio eta antolaketa
- *Urriak 28 – Azaroak 15.* Zurrumurrurik Ez formakuntza basikoa gauzatzea.

3. FASEA: PROZESU ETA EMAITZEN EBALUAZIOA

- *Azaroak 11- Abenduak 6.* Ebaluazioa
- *Abenduak 9.* Azkenengo bilera *Zurrumurrurik Ez* strategiako kideekin (Feedback-a jasotzeko)

IRAILA. 2019						
						1
2	3	4	5	11	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29

URRIA. 2019						
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AZAROA. 2019						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	1
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

ABENDUA. 2019						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

4.2.5. EKINTZAK ETA JARDUERAK

Behin proposamenaren faseak eta fase horien denboralizazioa definituta, fase bakoitzean gauzatuko diren ekintza edota jarduera konkretuak aurkeztuko dira. (*Ekintza bakoitzeko zehaztasunak ikusi nahi izanez, gero **Ikusi [3] ERANSKINA***)

1. FASEA KOMUNIKAZIO PLANA

- ❖ **“MOSKEO” KANPAINA.** Kanpaina honen bidez, material desberdinaz baliatuz, publikoa jakin-minarekin geratuko da. Material hau jarraitutasun bat izango du, jendeak azkenean, mezua zein den uler dezan.
- ❖ **SARE SOZIALAK ETA POSTA ELEKTRONIKOA.** Sare sozialak eta posta elektronikoa presente egongo dira esku-hartze guztian zehar, erreminta ezinbestekoa izango baitira informazioa zabaltzeko eta aldi berean, interesatuta dauden pertsonen iradokizunak egiteko edota zalantzak argitzeko.

Esku hartze honetarako sortuko diren sare sozial guztiek koherentzia eta kohesio izango dute haien artean, informazioa sare guztietatik berdin helaraziko da eta izena zein logo-a berdina edo antzekoa izango dira.

- ❖ **INFORMAZIORAKO KARTELAK. KANPUSEKO FAKULTATE DESBERDINETAKO PUBLIZITATERAKO PANTAILETAN.** EHU-ko Bizkaiko kanpusean fakultate desberdinetatik informatzeko kartelak jarriko dira, konkretuki, egingo den *Zurumurrurik Ez* strategiako formakuntza basikoaren inguruan.
- ❖ **INFORMAZIO HITZALDIAK.** *Zurumurrurik Ez* strategiako kideekin batera klaseetan hitzaldiak egingo dira, *Zurumurrurik Ez* estrategia ezagutarazteko eta egingo den formakuntza basikoaren gainean informatzeko eta zalantzak argitzeko.

2. FASEA. ZURUMURRURIK EZ FORMAKUNTZA

- ❖ **FORMAKUNTZA BASIKOA ANTOLATU ETA KUDEATU.** Formakuntza gauzatu aurretik, formakuntza planifikatuko da egutegia finkatu, deialdia egin (*Inskripziorako eredia eranskinetan ikusi dezakezue. **Ikusi [4]ERANSKINA***), sare sozialetan informatuko da jendea animatu dadin, etab.

- ❖ **ZURRUMURRURIK EZ ESTRATEGIAREN FORMAKUNTZA BASIKOA EHU-KO LEIOAKO KANPUSEAN.** Formakuntza plan honetaz, *Zurrumurrurik Ez* estrategiako kideek antolatu eta kudeatuko dute, beraz, haien esku geratuko da jarduera honen esku-hartzea atala.

3. FASEA. EBALUAZIOA

- ❖ **ELKARRIZKETAK.** Behin lehenengo bi faseak amaituta. Ebaluazio fasean, elkarrizketak egingo dira prozesuan zehar kudeaketaz arduratu direnei. *(Eranskinetan ikus dezakezue elkarrizketa prototipoa. Ikusi [5] ERANSKINA)*
- ❖ **INKESTAK.** Formakuntza amaitu ostean, parte hartzaileei inkesta bat pasatuko zaie, esku-hartzea ebaluatu ahal izateko. *(Eranskinetan ikus dezakezue inkesta modeloa. Ikusi [5] ERANSKINA)*
- ❖ **EBALUAZIO BILERA.** *Zurrumurrurik Ez* strategiako kideekin batera ebaluazio bilera bat egingo da, esku-hartzearen ahuleziak, indarguneak, mehatxuak eta aukerak analizatzeko eta iraunkortasuna finkatzeko.

4.2.6. BALIABIDE MATERIALAK, PERTSONALAK ETA ESPAZIALAK

BALIABIDE PERTSONALAK

Esku-hartzea modu eraginkor batean gauzatu ahal izateko hurrengo profesionalen laguntza ezinbestekoa izango da:

- ❖ Gizarte Hezitzaile 1 (Bolondres- Ni)
- ❖ Zurrumurruen aurkako 6 Aditu (Zurrumurrurik Ez formakuntzan landuko diren gaiaren inguruko adituak, formakuntzan eman ahal izateko)

Horretaz aparte bi bolondres komunikazio planean lagundu ahal izateko, sareak kudeatzeko, formakuntzetan dinamizatzeko, etab. beharrezkoak lirateke.

BALIABIDE MATERIALAK

Baliabide materialei dagokionez, ondorengoak behar izango dira:

- Ordenagailua
- Oihan biziduna

- Grabagailua (EHU-koa)
- Orriak A4 eta A3, boligrafoak, kartulinak, etab.

BALIABIDE ESPAZIALA

Esku- hartzean zehar bi alditan beharko dira espazio fisikoak, alde batetik EHU-ko Bizkaiko kanpusean *Zurrunurririk Ez* formakuntza basikoa egiteko EHU-ko Leioako kanpuseko espazio bat alokatuko da Hezkuntza Fakultatean (zenbat pertsona izena ematen dutenen arabera

III.Irudia: EHU-ko LEIOAKO HEZKUNTZA FAKULTATEA



23

IV. Irudia: ERROMOKO KULTUR ETXEA



espazio bat edo beste alokatuko da).

Bestetik ebaluazio fasean *Zurrunurririk Ez* estrategiako kideekin (esku-hartzean parte hartu dutenak) bilera bat egingo da, Erromoko kulturetxean.

4.2.7. AURREKONTUA

FORMAKUNTZA ORDUAK

BARNE ORDUAK	ORDU KOPURUAK	KOSTUA (€/ordu)	GUZTIRA
ADITUAK	15	100	1500€
GUZTIRA			1500€

GASTU MATERIALAK

GASTUAK	KOSTUA (€)	KANTITATEA	GUZTIRA
ORRIAK A3	50	0.20	10€
ORRIAK A4 (Pack 500 unitate)	5	4	20€
BOLIGRAFOAK	0.50	200	100€
FOTOKOPIAK	0.10	4000	400€
GUZTIRA			530€

AURREKONTU TOTALA

AURREKONTUA	GUZTIZKOA
BARNE ORDUAK	1500€
GASTU MATERIALAK	530€
GUZTIRA	2030€

5. ONDORIOAK

Lan honi amaiera emateko, jarraitutako prozesuaren gainean hausnartzea beharrezkoa litzateke. Hasierako atalean aipatu dudan legez, lan honen bitartez bi helburu konkretu lortu nahi nituen, batetik **edozein pertsonen, bereziki ikasleek, urtez urte, Zurumurrurik Ez estrategiak EHU**n eskainiko **duen formakuntzan parte hartu ahal izatea**; honi dagokionez, esan beharra dago, epe luzerako helburu bat denez eta prozesu luzeago bat suposatzen duenez, oraindik ez dela lortu, sortutako esku-hartze proposamena hau lortzera bideratuta egon arren.

Beste helburuari erreparatuz gero, hots, **ni neu ikasketa prozesu batetik igarotzea** eta bitzitako esperientzia **garapen pertsonal bat** suposatzea nigan; kontura gaitzke lortu dudala, izan ere, nahiz eta prozesuan zehar zailtasun ugari eduki, ikasketa sakon bat suposatu du nigan.

Aipatutako bi helburu hauek lanaren metodologiari nahiko lotuta doaz, hain zuzen ere, ikaskuntza zerbitzuaren metodologia erabiltzeak **ikaskuntza bat eskuratzea** eta komunitatean **zerbitzu bat eskaintzea** suposatuko du.

Egia da, bizi dudan esperientzia oso intentsua eta onuragarria izan dela, hala ere, metodologia honetan oinarritzeak alde onak zein ez hain onak ditu. Beraz, zein ahulezi, mehatxu, indar-gune eta aukera egon direnaren hausnarketa egitea ezinbestekoa da, metodologia hau hurrengo batean erabiliz gero hobetu ahal izateko. (*Eranskinetan ikus dezakezue prozesu honetan Ikaskuntza zerbitzuaren metodologia erabiltzearen analisi zehatzagoa AMIA tresnaren bidez. Ikusi [6] ERANSKINA*). Ahulezia, mehatxu, indar-gune eta aukerak analizatuz gero, esan daiteke, guzti hauek nik neuk, gizarte hezitzaile gisa, gaitasun ugari lantzea suposatu dutela, komunikazioa, sarean lan egitea, ekintzak eta jarduerak antolatzea eta kudeatzea, erresilientzia, informazio bilketarako gaitasuna, besteak beste. Hortaz, esan dezakegu, metodologia hau gizarte hezkuntzan oso baliagarria eta eraginkorra izan daitekeela, gure erronka nagusiak biltzen baititu, metodologia bakar

batean batetik zerbitzua, edo beste hitzetan esanda, komunitaterako garapena eta bestetik ikasketa prozesua.

Planteatutako proposamen sozio-hezitzaileari dagokionez, behin lana amaituz gero, oso argi ikusten dut gizarte hezitzailearen presentziaren garrantzia horrelako esku hartze sozio-hezitzaile batean, izan ere, proposatutako esku hartzea parte-hartzaileek gizartean eraldaketa positiboa sustatzearen heziketa prozesu batetik igarotzea izango litzateke, bat datorrena guztiz hezitzaile baten erronkekin.

ETORKIZUNARI BEGIRA...

Etorkizunari begira, itzaropenak ez dira baxuak. Lehenengo momentutik argi neukan nire GRAL-an aurkeztutako proposamena paperean islatu ez ezik, errealitatean ere gauzatu nahi izango nuela, beraz, nire eskuetan dagoen guztia egingo dut hori lortu ahal izateko. Egia da epeek, koordinazioak, lan taldeko kide kopuruak, etab., nik hasierako momentu batean neukan egutegi-proposamena betetzean eragozpenak sortu dituztela. Hala ere, hori ere ikaskuntza prozesu bat suposatu du nigan.

Buelta asko eman ostean eta nire interesa zein *Zurumurrurik Ez* estrategiako kideen inplikazioa kontuan izanik, urte honetako urriko hilean proposamena gauzatzea erabaki dugu. Erabaki honen arrazoia ekaina baino lehen egitea zentzu askorik ez izateaz gain (inpaktuari dagokionez, ez litzateke handia izango kontuan izanik azterketa eta entrega garaian gaudela), baliabide falta izan da, izan ere, duela gutxi diru laguntza baten deialdian eskaera egin dugu eta oraindik ez dugu erantzunik jaso, alabaina, oraindik denbora dezente falta denez, diru-laguntzaren eskaera ukatzen baldin badigute, denbora izango dugu beste hautabideren bat aurkitzeko.

Bestetik, esku-hartzea atzeratzeak proposamena hobetu ahal izateko aukera emango digu, GRAL-a aurkeztean nire tutore zein tribunalaren aldetik jasoko ditudan ekarpenak agian baliagarriak izango dira proposamena hobetzearen edota ikuspuntu desberdinak entzunda, zenbait alderdi egokitu ahal izateko, horrela proiektuak oihartzun handiagoa izateko.

Nire nahia proiektu hau urtez urte zabaltzen joatea litzateke. Azken batean, gero eta parte hartzaile gehiago lortu, orduan eta gizartean suposatuko duen eragina handiagoa

izango den. *Zurumurrurik Ez* estrategia EHU-ra halako proposamen batekin hurbilduko den lehenengo aldia izango denez, soilik Gizarte Hezkuntza, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Arte Ederrak, Soziologia, Kazetaritza eta Ikus Entzunezko Komunikazio graduetara zabaltzarekin nahiko iruditzen zait, hala ere, beste gradutako ikaslek ohartu eta parte hartu nahi izanez gero, ongi etorriak izango dira. Urteak pasa ahala, gradu gehiagotara irekitzea ondo legoke, azken batean oraingo ikasleak etorkizuneko profesionalak izango dira eta lanean zehar aipatu dudan moduan, hauek gizartea zertxobait bidezkoagoa izatean eragin zuzena daukate.

Etorkizun batean proiektu hau EHU mailan ezaguna izatea nahiko nuke, horrela urtez urte ikasle berriak parte har lezakete. Azkenik, esaldi batekin bukatu nahiko nuke nire GRAL-a:

*"Sarritan egiten duguna soilik itsasoaren ur tanta bat baino ez dela pentsatzen dugu,
hala ere, itsasoa gutxiago litzateke tanta horren faltan"*

6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Aguilera, M. (2011). ¿De qué hablamos cuando hablamos de aprendizaje–servicio?. *Crítica*, 972, orr. 49-54

Antirumores. (2013). 2019ko maiatzaren 17an hurrengo helbidetik berreskuratuta: <http://www.antirumores.com/eus/azpimarratzekoak.html>

Arce Programa-proiektua Dos Mares (2014). *Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuei aholku emateko gidaliburua*. Donostia-San Sebastian: IVAP. 2019ko apirilaren 24an berreskuratuta <https://issuu.com/bgg01/docs/aholkularitza>

Battle, R. (2018). *Proyecto Social Guía Práctica de aprendizaje Servicio*. Madrid, España: Santillana Educación S.L.

De Torres, D. (2018). *Manual Antirumores*. Europa: Consejo de Europa.

Díez, J. eta Flecha, R. (2010). Comunidades de Aprendizaje: un proyecto de transformación social y educativa. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, vol. 24(1), orr.19-30.

Gallego, F., (2010). *Cómo abordar los rumores. Manual para comprenderlos y diseñar estrategias para contenerlos*. Barcelona: Diputación de Barcelona.

Huamán, M.A., (2013). *Lecturas de teoría literaria II*. Lima: UNMSM Fondo Editorial

